

Kapital finkoa eta inflazioa

Joseba Tobar-Arbulu
EHUko irakaslea

Kapital finkoaren eratzea analizatzen da, mozkinak inbertitu diren arabera. Kapital finkoaren amortizazioak inflazioaren kausa diren emisio huts kaltegarriak sortzen ditu. Patologia horren irtenbidea banku guztiak hiru departamentutan banatzean datza.

The formation of fixed capital is analyzed when profits are invested. The production of fixed capital leads to empty emissions which are the main cause of inflation. The solution to this pathology requires the distinction of three departments at the banking level.

Errenta guztiak, alokairuak barne, alokairuen sormen/deuseztapenean sortu eta deuseztatu egiten dira. Errenten deuseztapena kontsumoa izan daiteke edo kapital baten eratzea. Kontsumoa baldin bada, gastu horrek errenta osoa deuseztatzen du.

Kapitala, bere aldetik, bi eitetan ager daiteke. Lehengoan, kapitala oraingo eta etorkizuneko errenten arteko zubia da: denbora-kapitala da (Tobar-Arbulu 1997). Bigarreanean, kapitala oraingoz denbora da, baina orain kapital instrumentalean *finkatua* da.


1. Kapitalaren jatorria alokairuen emisioa da

Banku-monetaren gainean argudiatuko dugu. Produktu guztia alokairuen emisioan agertzen da.

Errentak bat-bateko existentzia dauka. Errentak sortzen direnetik, berorien titularren maileguz ematen dituzte berorien “berrartzearen” aldiunerarte. Hau da, errentak bat-batean *aurrezki*, edo identikoki *kapital*, bilakatzen dira.

Oraingoz gastatu gabeko errentak kapital dira, bankuaren gainean titulu edo kreditu-eskubide bezalakoak.

Enpresetan, “kontsignan” bezala, gordailaturiko ondasunak errenta-titularren jabeago ekonomiko dira. Enpresak bankuari stockak “zor” dizkio, eta bankuak errenta-titularrei “zor” dizkie.



Enpresetan gordailaturiko benetako jabeak titularrak dira, tituludunak (tituluak bankuei erosiak), aurreztaileak.

Edozein kapital errenta-titularrei dagokie, ez enpresei. Kapitala titularren etorkizuneko errenta da. Ezein titularrek ez du astirik errenta gastatzeko beronen eraketa-aldiunean; titular bakoitzak bere errenta aurrezten du berak produktuen merkatuan (nahi duenean) gastatzen duen aldiunea arte. Aurrezkiak ez da errenta, kapitala baizik.

Aurrezturiko alokairuak, alde batetik enpresan gordailaturiko produktu dira eta, bestetik, produktu horren gaineko eskubide erreala errenta-titularren hartzekoan.

Bankuen aurrean errenta-titularrek daukaten eskubide erreala produktu fisikoaren neurri zehatza da, kapital materialean (stockak) eratua eta enpresan gordea. Produktua monetatan sortzen da, gero, alde batetik titulua dago (aurrezkiak), eta bestetik, tituluaren objektua (stockak).

Ez titulua (kapital finantzarioa) ez eta berorren objektua ere (kapital materiala) ezin daitezke existi bata bestea gabe.

2. Aurrezturiko errentaren zati bat enpresa-kapitalean eratzen da

Egia da produktu-merkatuan azkenik gastaturiko edozein aurrezki kapital ezabatua dela: produktua gordelekuetatik erretiratzen da, eta korrelatiboki, bankuen gaineko familien eskubide errealak desagertzen dira.

Beraz, existi daitekeen kapital bakarra enpresen mozkinerako alokairuen zati baten transferentziatik dator. Transferentzia hori produktuen merkatuan eta zerbitzu produktiboen merkatuan batera dagoen fluxua da.

Bere eraketatik, edozein mozkin kapitala da. Alde batetik, *finantza*-magnitua, mozkin bankuen gaineko kobrantza-eskubidea erreala baita; bestetik, *magnitua materiala*, mozkin eskubide erreala baita.

Alokairu-ondasun gordailuetatik kanpo, mozkin monetarioak daude, alokairuzko errentak enpresei transferitzen zaizkien neurri zehatzean.

3. Kapital-mozkinaren zati bat azkenik deuseztatu egiten da, stock korrespondentearen irteeran

Ez-alokairuzko errentatan —dibidendo, interes, errenta— banaturiko edozein mozkin deuseztatu egiten da bere bi eiteetan: familiek kontsumitu egiten dute (kapital finantzarioaren deuseztapena) eta, hori egitean, stocken neurri bera erretiratzen dute.

4. Kapital-mozkinaren zati osagarria, inbertituriko mozkin, fisikoa da; materialen sarturik, aurrezki finantzarioak bertan dirau

Mozkina eragiketa uniboko batean inbertitzen da, alokairu berrien ordainketan enpresek eskuraturiko aurreko alokairuen bidez. Horregatik, inbertsio-ondasunak hasieran errenta-titularren aurrezkiak gordailaturiko alokairu-ondasunen era berri eta azkena dira.

Epealdi berriaren produkzioak, kapital-ondasunak sortzen dituenak, alokairu-ondasunak jaulkitzen ditu eta horien bidez, bat-batean, kapital instrumentalak, aldatu gabeko “stockean”. Azkenik, erremintak, makinak eta ekipamenduak alokairu-ondasunak dira, zeintzuen aurrezkiak erabat ihes egiten dion familia-kontsumoari.

Oraingoz, kapital finantzarioaren eta kapital materialaren erlazio biunibokoa errespetatzen da. Egiaztatzen da aurrezkiaren (kapital finantzarioa, alokairu eskuratuak eta inbertituak berdintzen dituen) eta “stockaren” (kapital materiala, mozkinetatik alokairuen emisioaren produktua espezieetan) koexistentzia. Esan daiteke kapital finantzarioa inbertsio-ondasunean “saturik” (*embodied*) dagoela.

5. Kapital finkoa

Esaten denez, kapital finkoaren gehiketak, inbertsio netoak, bi iturri desberdin ditu, mozkin (edo autofinantzaketa) eta obligazio-merkatuetako mailegua.

Lehendabizi frogatuko dugu bi iturriak, errealitatean, bat besterik ez direla: kasu bietan, enpresaren mozkinaren gastuak inbertsioa definitzen du. Horrela, kapital finkoaren analisisiaz mozkinaren analisisia kokatzen da.

Inbertsioaren eragiketari atzerantz begiratzen bazaio, ikusten da mozkin monetarioa lehendabizi, bere lehen egoeran, *aurrezkoa* dela. Kapital-ondasuna aurrezki monetarioaren aurrean alokairu-ondasunek osaturikoa da. Horrela, bere sorreran, kapital finkoa, alokairu-ondasun aurreztuen eran agertzen dena, denbora-kapitala besterik ez da.

Gero esplikatu beharra dago mozkin monetarioaren gastua, beraren eraldaketa ondasun fisikoetan.

Edozein delarik bere helburua, mozkinak beti zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dira, produktuen merkatuan soilik alokairuak gastatu baitaitezke. Ondorioa argi dago. Mozkin monetarioen eraldaketak inbertsio-ondasunetan suposatzen du ez soilik mozkina zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dela —zeina egiazkoa den mozkinaren edozein gasturako— baizik eta mozkina produkzio berri batean gastatzen dela, mozkina sortu zeneko alokairuen produkzioaren ondokoa.

Azkenik, inbertsioa bere osotasunean egiten da: alokairu-ondasuneko stockaren eraldaketa kapital-ondasunen “stockean” edo kapital instrumentaletan besterik ez da. Horrela, kapital finkoa denbora-kapital hutsaren eraldaketa dela egiaztatuko da.

5.1. Edozein inbertsiok bere iturria enpresaren mozkinen dauka

Finantzaketa maileguz hartzen denean, enpresak bere buruari mozkina aurreratzen dio. Hala, inbertsioa jadanik gauzaturiko mozkinaren gastua da edo gauzatua izanen den mozkinarena (geroxeago gauzatuko dena, baina jadanik erabilgarria, mailegu-emaeleak dagoeneko egindako errentaren trukean aldatzen baita).

5.2. Mozkinaren inbertsioak alokairu-emisio berri bat dakar

Mozkinaren inbertsioa zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen da, alokairuen emisioan. Beharrezkoa da, bada, bi epealdi desberdin kontuan hartzea: batean mozkina eratzen da, bestean mozkina gastatu eta inbertsio-ondasunetan eraldatzen da.

Kapital-ondasunak, edo inbertsio-ondasunak, ez dira kapital finkoaren era primitiboa, beraren bigarren forma baizik, mozkin monetarioaren eraketan aurrezturiko alokairu-ondasunen “kontsumo produktiboak” lortua.

5.3. Kapital finkoaren eratzea

Kapital finkoa mozkin monetarioen eraldaketak aurrezturiko alokairu-ondasunen azken forma da: esan bezala, kapital finkoa denbora-kapital hutsaren eraldaketa da.

Ikus dezagun mozkinaren eraketa/gastua inbertsio kasuan:

(i) Mozkinaren eraketak alokairu-ondasunen stockaren baliokidea determinatzen du. Stock hori kapital finkoaren lehen definizioa da. Izan ere, kapital finkoak mozkin monetarioaren eraketan du jatorria, zeinarena “eraldaketa” besterik ez den.

(ii) Mozkinaren gastuak kapital finkoaren barne eraldaketa definitzen du, beraren edukia, alokairu-ondasunetan lehendabizi eratua, kapital-ondasunetan edo kapital instrumentalean eraldatzen delarik. Mozkina gastatu ondoren, kapital finkoa oraingoz denbora-kapitala da, baina aldi honetan denbora behin betiko “Produktuan sarturik” dago, zeinaren era instrumentalak kontsumotik etengabe ihes egiten duen. Kapital finkoa alokairu-ondasun eraldatuen stocka da —kontsumo produktiboak eraldatuak—; beraz, beraren familien arteko banaketa egun batetik bestera luzatzen da: edozein kapital finko “bihar” kontsumituko da, bihar hori etengabe luzatuz.

Alokairu-ondasun ez-eraldatuak (soilik aurreztuak) lehenago edo beranduago saldu egiten dira; kapital finkoan eraldaturiko alokairu-ondasunak aurrezki finko dira, zeinaren banaketa etengabe luzatzen den, egunetik egunera. Dena den, kapital instrumentalean finkatzen dena denbora besterik ez da.

Ikus ditzagun aipaturiko kapital finkoaren eratzean agertzen diren emisio huts ez-kaltegarriak eta kapital finko horren amortizazioak dakartzan emisio huts kaltegarriak.

6. Inbertsio netoa

Inbertsio netoak ekonomia nazionalaren funtzionamenduan emisio hutsak sortzen ditu.

Inbertsio netoak izaera bikoitza dauka. Alde batetik, denbora-kapitala eratzen du; bestetik, inbertsio netoak emisio hutsa sortzen du.

6.a. Denbora-kapitala

Denbora-kapitalaren metaketa laua —mozkinetan eraldatzen ez diren alokairuen aurrezkiari dagokiona— eragiketa (positibo, negatibo edo baliogabe) bat da, produkzio-epealdi bakoitzaren barnean kokatzen dena, alokairuen bi emisio jarraituk definituriko mugen artean. Hau da, eragiketak epealdi soil bat inpliketzen du. Errenta-titularrek beren irabazi korronteen zati bat metatzen badute, denbora-kapitala metatzen dute; metaketa netoa da gizartean, aurrezki-korronteak “des-aurrezki”-korronteak baino handiagoak izaten direlako baldintzetan.

Inbertsio netoa konplexuagoa den denbora-kapitalaren metaketa da. Kasu honetan, logikaz, bi epealdi desberdinetan argudiatu behar da: mozkina epealdi bateko alokairuetatik eratzen da eta beste epealdi bateko alokairuen emisioan gastatzen da. Izan ere, pentsatu ezinezkoa da epealdi bateko alokairuetatik irienda, mozkina epealdi bereko alokairuetan inbertitzea.

Demagun etsenplu bat.

(p) epealdian, ekonomia nazionalak 100 alokairu-unitate ekoizten ditu. Eman dezagun 100 unitate horietatik 20 mozkinetan eratzen direla. Beraz, bi aukera daude:

(a) Baldin eta mozkinetan irabazitako 20 alokairu-unitateek dibidendoak (edo beste edozein ez-alokairuzko errenta bat) elikatzen badituzte, enpresetatik kanpo eratuak, dagozkien ondasun errealak —dibidendo-ondasunak— (p) epealdiko produktuaren bostena dira. Izan ere, azkenik enpresek 100 moneta-unitateko existentziari aurre egiten diote, zeinetatik 20 birbanatzen diren, produktu erreala 100 moneta-unitateetan sarturik dagoela. Alokairuen gastuak, alde batetik 80 unitate eta 20 bestetik, (p) epealdiko produktuaren alokairuzko eta ez-alokairuzko errenta-titularren multzoari azken salmenta definitzen du.

(b) Dena erabat ezberdina da baldin eta mozkinetan irabazitako 20 alokairu-unitateek, birbanatuak izan barik, inbertsio netoak finantzatzen dituzte, hau da, enpresen mozkinerako gastuak (egoera berri horren analisia ez da aldatzen baldin eta mozkinetan irabazitako alokairuak finantza-merkatutik badatoz; langileek erositako obligazioek enpresen mozkinak “aitzinate” egiten dituzte).


Demagun mozkinetan irabazitako alokairuak, eratzen direneko epealdi berean inbertitu nahi direla. Kondizio honetan, mozkinen batura baliogabea izan behar da halabeharrez. (p) epealdiko produkzioak 100 alokairu-unitate ematen du; mozkinen 20 unitateen inbertsioak (p) epealdiko produkzioaren parte bat adierazten du; ikusten dugu produktu horren salmenten baturak bere produkzio-kostu osoa berdintzen duela (alokairu-unitatetan). Mozkina baliogabea dela deduzitzen da. Errealitatean, bistakoa denez, mozkin inbertitua positiboa da: enpresek (p) epealdiko mozkinak jarraiko eta geroko epealdi bateko produkzioan inbertitzen dituzte.

Gehigarria izanik, epealdi baten mozkina soilik jarraiko eta geroko epealdi batean inbertitu ahalko da.

Beraz, aukerak honelakoxeak dira:

(i) Mozkin *birbanatuak* epealdi bereko produkzioan eratu eta gastaturiko errentak dira.


(ii) Mozkin *inbertituak* epaldi baten produkzioan eratzen dira, eta beste epealdi baten produkzioan gastatu.



Kasu bietan, produkzioak, epealdiko, 100 alokairu-unitate berdintzen du. Mozkina birbanatzen denean, (p) epealdiko mozkin erreala (p) produktuaren alde margoztua da. Honela, (p+) jarraiko produkzioak ez dauka alokairuen ordainketan aurreko inolako mozkinen gasturik. Aitzitik, mozkina inbertitzen denean, (p) epealdiko alokairuen ordainketek ez daukate (p) epealdiko inolako mozkinaren gasturik: mozkinaren 20 unitateak (p+) epealdian ordaindurik 100 alokairu-unitateen parte dira (alde margoztua).

Egia da (p) eta (p+) epealdietako produktuak elkartrukagarriak direla; beraz, litekeena da enpresek inbertsio-ondasunak (beren kapital instrumentalaren gehitzea) (p) epealdiko produktuaren artean aukeratzea; hala ere, baldintza horretan ere, inbertsio-ondasunak dira; (p+) epealdian eraturiko kapitala trukutzen da, “aldez aurretik” eta merkatu-prezioan, (p) epealdiko produktu baliokide baten bidez.

Mozkin *birbanatua* mozkinetan irabazitako alokairuen eratzea atzera-eraginez gastatzen da; aldiz, mozkin inbertituak itzuliezinezkoa den denbora-kapitala definitzen du; mozkin inbertituaren aurrean, nahitaez, behaturik, (p) epealdiko 20 unitate aurrezten dira.



Mozkina lortzen duten enpresak E' dira; egiaztatzen da E''-n, alokairu-ondasunetan, 20 unitate berdintzen duen aurrezki korrelatibo baten eratzea. Mozkin inbertituetan eskuraturiko alokairuen baliokidea izanik, alokairu-ondasunen aurrezki denbora-kapital definitiboa da; (p+) epealdiko produkzioa (20 unitate arte) ez da aurrezki horren deuseztapena, beraren objektuaren eraldatzea baizik: kapital finkoak aurrezkiaren alokairu-ondasunei leku hartzen die.

Beraz, beraren “lehen naturan”, kaltegarri ez dena, inbertsio netoa denbora-kapitalaren metaketa konplexuagoa besterik ez da.

6.b. Emisio hutsa

Inbertsio netoaren “bigarren natura” emisio huts bat da.


Alokairu edo mozkin birbanatuak soilik kontuan hartzen direnean, zerbitzu produktiboen merkatuan eite bakarreko eragiketak besterik ezingo dira ezagutu, baldintza horietan, alokairuen edozein emisio produktuen merkatuan erosketa baliogabea izanik. Mozkin birbanatuen gastua zerbitzu produktiboen merkatuan produktuen merkatutik ateratzen da.

Alokairuen gastuaren erretroakzioa ez da kontuan hartzen beraien eratze-eragiketetan, alokairuen deuseztapenaren erretroakzioak ez baitauka lekurik hemen. Hala ere, erretroakzio bat sartzen da, mozkinetan bereganaturiko alokairuen par-

teari dagokiona: izan ere, mozkinak kontuan hartzen direnean, beraien eratzek dakartzan alokairu gastatuak eta deuseztatuak ezin daitezke bazter. Beraz, kasu guztietan, are mozkin birbanatuetarako, mozkinen eratzek alokairuen emisiotik erosketa bat suposatzen du, erosketa produktuen merkatuan.

Dena den, baldin eta mozkinen eratzek alokairuen ordainketa erosketa positiboak sortzen baditu, alokairuen azken gastua beste horrenbeste murrizten da. Zerbitzu produktiboen merkatuan gastaturiko alokairuak ezingo dira gastatu produktuen merkatuan. Alokairuen ezein emisio ez du produktuen merkatuan erosketa gehigarri definitzen.

Itzul gaitezen etsenplura.



Margozturiko parteak hauexek dira: (a)-n alokairuen sormenean sarturiko mozkinen gastua, eta (b)-n mozkinen sormena alokairuen gastuan sartuta. Konpentsazioaren ondoren, egiaztatzen da alokairuak inolako errenta-deusezta-penik ez daukan mugimendu batean eraten direla eta, simetrikoki, alokairuak ezelako errenta-sormenik ez daukan mugimendu batean gastatzen direla.

Mozkinen eratzea eta gastua alokairuen zirkuituaren barneko zirkuitu bat dira. Honela, 100 alokairu-unitateko emisioaren ondoren, produktuen merkatuan 100 errenta-unitate daude erabilgarri; beste aldetik, errenta horien gastuaren ondoren, egiaztatzen da produktu-merkatuan azken erosketak 100 alokairu-unitateko baturara murrizten direla. Mozkin birbanatuen eratzek eta gastuak ez diote ezer gehitzen produktu-merkatuan egiaztaturiko gastuen baturari.

Aitzitik, mozkinaren inbertsioa erosketa gehigarri bat da produktu-merkatuan. Froga dezagun hori bi partetan:

(i) Inbertsioari zuzenduak, mozkinak lana erosteko ahalmena daukate. Ez alokairuek ezta mozkin birbanatuek ere ez diete ematen beren titularrei besteen lana beren onurarako jartzeko ahalmenik. Agenteeek soilik produktua bereganatzeko posibilitasuna daukate, ondasunak alegia, zeinen produkzioak errentak —alokairuzkoak eta besteak— jadanik sortu dituen.

Mozkina eragiketa oso berezi batean inbertitzen da; lana erosten du; beraren ordainketa da. Kasu honetan, lana bera merkantzia bat da; erosten da mozkinak alokairu berrietan eraldatzearen bidez. Baldin eta (p+) epealdiko emitituriko 100 alokairu-unitatetatik, 20 unitate aurreko produktuan eraturiko mozkinetatik badira eratuak, mozkinak honela inbertituz, (p+) epealdiko lanaren zati bat erosten dute

enpresek, (p+) epealdiko populazio aktiboaren bostena —alokairu unitatetan neurtua—, hain zuzen.

(ii) Lanaren erosketa identikoki lan-produktuaren erosketa da. Izan ere, langileen jarduera erostean, 20 alokairu-unitate arte, enpresek mugimendu berean jarduera horren produktua erosten dute: ondasun errealak 20 alokairu-unitateko neurrian. Langileen jardueraren erosketan eskuraturiko ondasunek *kapital finkoa* definitzen dute.

Bi partetan dagoen informazioa batuz, bilatzen dena aurkitzen da. (p+) epealdian, alokairuen emisioa 100 unitatekoa da, dagokion azken erosketen batura 120 alokairu-unitatekoa den bitartean. Errenta-titularrek 100 alokairu-unitate edukitzen dituzte (partzialki birbanatuak interes, errenta eta dibidendo bezala); beren aldetik, enpresek jadanik 20 alokairu-unitate gastatu dituzte produktuen merkatuan, 100 alokairu-unitateko emisioan sarturiko gastua.

Zein da erosketa gehigarria? Erantzuna bistakoa da: mozkinetatik alokairuen ordainketa da. (p+) epealdiko 100 alokairu-unitateko emisioa soilik betea da 80 unitateetarako; gainontzekorako hutsa da, enpleguriko langileen bosten produktua alokairuen emisioan bertan jadanik gastatua izan baita.

(p+) epealdian sorturiko (eta denboran ezarririko) 100 errenta-unitateko titularrek (p+) epealdiko produktuaren 80 unitate soilik eros ditzakete; diferentzia enpresek metaturiko kapital finkoa da. Emitituriko 100 alokairu-unitateetatik 20 (produktutik) hutsak direla egiaztatzen da.

Beste hitz batzuez esanda, 100 alokairu-unitatetan emititua izan arren, (p+) epealdiko produktua soilik ezartzen da 80 alokairu-unitatetan, diferentzia enpresetan metaturiko kapital finkoaren berehalako gehiketa izanik.

Alokairuen emisio betea da alokairuen eratzea mozkinen gastuarekin bat etortzen ez denean. Aitzitik, alokairuen emisio hutsa da mozkinen gastuarekin identifikatzen den heinean, mozkinen inbertsioan betetzen den bitartean.

Ohar gaitezen ezen emisio hutsa ez dela sasi-lan baten ordainketa. (p+) epealdiko jarduerak 100 ondasun berriko neurria ekoizten du, zeinean langileek soilik 80 unitate jasotzen dituzten beren 100 moneta-unitateko alokairuetan. Kapital-ondasunak ez dira ezartzen ez alokairu monetarioetan ez eta denboran ere; aitzitik, enpresek zuzenki bereganatzen dituzte.

Froga dezagun inbertsio netoak definitzen duen emisio hutsa ez dela kaltegarria.

Inbertsio netoa emisio huts *ez-kaltegarria* da, galdutako alokairuak konpentsatu egiten baitira; (p+) epealdiko produkzioak mozkina inbertitzen du; horrela, ikusten denez, alokairuetan eragindako efektua konpentsatu egiten da.

(p+) epealdian emitituriko alokairuek ez dauzkate epealdi honetan produzitzen diren kapital-ondasunak. Hala ere, (p+) epaldian ordaindutako alokatuek (p) epealdiko produktutik aurrezturiko alokairu-ondasunak bereganatzen dituzte, mozkinaren eratze-denboran. Azkenik, (p+) epealdian emitituriko alokairuak 100

produktu-unitateei dagozkie, 100 alokairu-ondasunen unitate, zeinetatik 20 unitate (p) epealdi aurreko produktiotik datozen.


Egia da (p+) epealdiko produkzioak emisio huts bat daukala, baina ez da kaltegarria, zeren eta kapital-ondasunak, alokairu errealetatik bat-batean erretiratuak (100 alokairu-unitatek erosteko ahalmeneko 80 unitate besterik ez dauzkate), aurrezturiko alokairu-ondasunekin konpentsatzen baitira.

Azken analisian, 100 alokairu berriko unitateek erosteko ahalmeneko 100 unitate dauzkate. Inbertsioa emisio huts ez-kaltegarria bada ere, emisio kaltegarriak prestatzen ditu, kapital finkoaren amortizazioari dagozkionak.


7. Inbertsio netoak definitzen duen emisio hutsak ondorio kaltegarriak ditu errenta-titularren “desjabetza” sortuz: kapital finkoak ihes egiten die

Kapital-ondasunen produkzioa emisio betea balitz, inbertsioari dagokion eskari gehigarria baliogabea litzateke. Errealtatean, alta, eskari gehigarria positiboa da. Tentaturik egon daiteke lehendik aurrezturiko alokairu-ondasunen bidez finantzatuz, eskari gehigarria murrizteko. Prozedura desegokia litzateke, alokairu-ondasunen parte bat *birritan* erosiko delako, lehendabizi mozkinen eratzean —aurrezki-jarduera erosketa bat da—, gero beraien inbertsioan.

Alokairuek, mozkin bilakatzen diren heinean, errenta-titularrei ihes egiten diete. Bi aukera daude: mozkinak banatzen badira, errenta-titularrek beren galera errekuperatzen dute, dibidendoen alokairu murriztuak konpentsatzen baitituzte. Alderantziz, mozkinak inbertitzen direnean, errenta-titularren desjabetza betikoa da.



Mozkinak inbertitzen diren heinean, dena bukatzen da beraien eratzetik. Emisio hutsa mozkinen eratzean datza. (p) epealdian, 100 alokairu-unitate lortu duten langileek, benetan, soilik 80 eskuratu dute, zeren eta, atzera-eraginez, egia baita mozkinetan desnaturaldutako 20 alokairu-unitate ez dutela lortzen. (p+) epealdian mozkinen gastuan egiaztatzen den emisio hutsa, (p) epealdian gertatzen den hasierako emisio hutsaren errepikapen (ez-metagarria) besterik ez da.



Alokairuen emisioa 100 moneta-unitate eratze/gastua bada ere, fluxu monetarioen bidez errenta-titularrengana soilik 80 ondasun-errealeko unitate “kanalizatzen” dira. Langileek moneta betea (=80) eta moneta hutsa (=20) eskuratzen dituzte. Beraz, kontsumo-kategoriak ez du errenta nazionala osatzen, 100 alokairu-unitateko kontsumoak soilik fluxu errealeko 80 unitate definitzen baititu. Inbertsioa sumagarria da: $R = K + I = 100 + 20$. Inbertsioa emisio hutsa da, epealdiko produktu osoa 100 alokairu-unitaterekin neurtzen baita, eta ez 120rekin.

Inbertsio netoak esanahi unibokoa dauka. Produktu osoa produkzio nominalak aurretik sorturiko 100 alokairu beteko unitaterekin neurtzen da. Mozkin inbertitua 20 moneta-unitatekoa denez, enpresek berehala (alokairuen ordainketaren aldiu-nean) ondasun errealeko 20 unitateko neurria kentzen dute. Kentze horrek ez ditu alokairu monetarioak ukitzen; soilik produktua murrizten du alokairu monetarioetan. Monetatik ateratako produktua familiei kentzen zaie, “ez-pertsona” den batek eskuratzeko, herrialdeko enpresen multzoak.

Errenta-titularrek galtzen duten neurrian, produktuek kapitala elikatzen dute.

“Ez-pertsona” den kategoria patologia batek sortzen du, inbertsio netoa emisio faltsua delako. Errenta-titularren “desjabetza” edo “espropiazio” kontzeptuak, edo, identikoki, produkzio-medioen jabetza pribatuak, bere benetako adierazpen ekonomikoa lortzen du. Oraintsu arte, defuntzionaltasuna termino juridikoetan formulaturik zegoen. Hemendik aurrera, argi dago maila juridikoak ez duela ezer konponduko emisio hutsek iraungo duten bitartean.

8. Kapital finkoa ez pertsona (enpresen multzoa) den baten jabetza izanik, berorren amortizazioak emisio kaltegarriak sortzen ditu

Errenta, nazionala, R , kontsumoan edo kontsumo eta inbertsioan adieraz daiteke.

$$(1) R = K$$

$$(2) R = K + I$$

Autore askok lehen formula hobetsi dute, soilik kontsumoan ondasunak bukaturik daudelako; inbertsio-ondasunak benetako ondasunen prestakuntzan daude sarturik, prozesu-fasean. Intuizio hori emisioen logikak baieztatzen du.

(2) definizioa ez da (1)-aren bariante soila. Errenta nazionalaren adierazpen nominala edo monetarioa ez da berdina bi ekuazioetan.

$$(1) R = K = 100$$

$$(2) R = K + I = 120$$

Inbertsio-gastua ez da kontsumoaren aldean gehitze erreala. Alokairu-unitatetan neurtua, produktu osoa ez da aldatzen; beraz, honela idatz daiteke (2) ekuazioa,

$$R = K + I = 120 \text{ monetatan} = 100 \text{ alokairu-unitatetan.}$$

Inbertsioa gehitze erabat nominala da. Inbertsioa kontsumoari gehitzen zaio soilik emisio hutsak besteei gehigarri zaizkielako. Beraz, logikak inbertsioa kontsumoaren “kategoria prolificoa” izatea behartuko luke, mozkinak alokairuenak diren bezala.

Errenta-titular anonimoek kapital instrumentalaren jabeak dira, kapitalaren orde; hala ere, produkzio-erremintek ezin dute funtzionatu etxeetan. Magnitude nominalen (120) eta errealen (100) diferentziak ez du ematen arriskutsua denik. Azkenik, eskari gehigarriak soilik esan nahi du mugimendu gehigarri hori: kapitalak eskuratzen duen mozkin inbertitua (20).

Arazoa hurrengo urratsean agertzen da —inflazioa eta langabezia sorraziz—, kapital finkoaren amortizazioarekin.

9. Kapital finkoaren amortizazioa

Desfuntzionaltasunaren jatorria mozkinaren inbertsioan dago. Banatzen ez den edozein mozkin zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen da. Alokairuzko eta ez-alokairuzko errentak, aldiz, produktuen merkatuan gastatzen dira.

Hola, mozkin (ez-banatuena) enpresa-titularra ez da errenta-titular arrunta, “ez-pertsona” baizik.

Inbertituak izanik, mozkinak halaberrez zerbitzu produktiboen merkatuan gastatzen dira, non lana erosten duten: beraiek bihurtzen dituzten ondasunak produzitzeko enplegaturiko langileen ordainketetan desagertzen dira, zeinak, dudarik ez, kapital-ondasunen aldaketa librea, merkatu-preziotan, truke orokorrean, onartzen duen.

Lege hori ikusi eta gero, alokairuen sormen eta deuseztapenaren zirkuitua eraikiko dugu, kapital finkoaren amortizazioa kontuan edukiz. Industri ekonomia-
ren banaketa bi sektoretan induzituko dugu: batak alokairu-ondasunak ekoizten ditu emisio beteetan, eta besteak mozkin-ondasunak, *stricto sensu*, emisio hutsetan.

Legea. Mozkinen gastua edozein mozkin banaturako, logikoki produktuen merkatuko eragiketa bat da, eta, alderantziz, edozein mozkin inbertiturako, zerbitzu produktiboen merkatuko eragiketa bat.

Froga zerean datza, mozkina gastatzen duen pertsonaren identitatean.

Edozein mozkin *banaturako*, berorren eratzeari enpresek “luzaturiko” gastua da. Baldintza horietan, mozkina, berorren titularren esku, moneta positibo bat da, enpresetan baliokide den moneta negatibo baten eratzeari sortua; hain zuzen, horrela eraturiko moneta negatiboak enpresen mozkina deuseztatzen du, birbanatzeko helburuarekin. Horregatik, mozkin transferituaren gastua, edozein errentarako bezalaxe, bi monetak, positiboa eta negatiboa, elkartzea da.

Interesen, dibidendoen eta errenten gastuak beraiei dagokien produktu erreala askatzen du, zeinak deuseztatzen den aldiunean bertan moneta lagatzen duen.

Mozkin *ez-banaturako* analisisa ezberdina da. Banatzen ez den mozkinaren gastua dela-eta, enpresaren multzoa (E) batera da gastuaren “jaurtikitzailea” eta “jasotzailea”. Beraz, Eren gastua En adierazi behar da.

Horretarako, beharrezko eta nahiko da mozkinaren gastua lanaren erosketa izatea. Zehaztu beharra dago zerbitzu produktiboen gastua, mozkinak honela finantzatua, netoa dela.

(i) Mozkin *banatuen* kasuan, produktuen merkatuan gastuen batura zerbitzu produktiboen merkatuan dagozkien baturaren berdinkidea da.

(ii) Mozkin *inbertituen* kasuan, produktuen merkatuan gastuen batura zerbitzu produktiboen merkatuan dagozkien gastua baino handiagoa da (inbertsio-kopuruan).

Beraz, honelako irizpidea formula daiteke. Ez-banaturiko mozkinen gastua eskariaren *gehitzea* da; mozkin banatuen gastua alokairuen gastuan *sarturik* dagoen eskaria da.

Edozein mozkin inbertitu E-ren gaineko E-ren gastutzat definitzen da, eta E-ren gaineko E-ren edozein gastu produktuen merkatuan eskari gehigarria da, zerbitzu produktiboen merkatuko gastuen bidez gauzatua.

10. Alokairuen zirkuitua kapital finkoaren amortizazioarekin

10.1. Amortizazioa eragiketa konplexua da, inbertsio-ondasunak ez dagozkielako familiei

Demagun A dela epealdian amortizazio-ondasunen produkzioarako emitituriko alokairuen kopurua. Ezar dezagun zirkuitua amortizazio-ondasunak adiera hertsiko alokairu-ondasunak balira bezala. A alokairuak (ez-alokairuzko errentatan partzialki banatuak) amortizazio-ondasunak erosteko gastatuko lirateke. Zirkuitua “smithtarra” litzateke.

Egia da, are aipaturiko soluzio lau horretan ere, amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuak alokairu-ondasunen —kapital finko amortizatuen laguntzaz produzituak— erosketan gastatzen direla. Honela, amortizazio-ondasunen erosketa zeharkakoa da: alokairu-ondasunen salmentan irabazitako mozkin gordinak enpresei amortizazio-ondasunak erosteko aukera ematen die.

Zergatik ez du funtzionatzen ekonomiak aipaturiko eskemaren bidez? Arrazoia zera da, kapital finkoak ez direla familien jabetza ekonomikoa.

Gogora dezagun inbertsio netoa emisio hutsa dela, zeinaren emaitza errenta-titularren multzoari kapitalaren jabetza kentzea den. Kapital finkoaren amortizazioak Smithen logikari jarraituko lioke, baldin eta kapitala finkoa balitz familien ondarean (geografikoki, enpresetan gordailatua egonik, noski, produkzio-medioa izateko).

Errealitateak beste adierazpen bat behar du. Amortizazio-ondasunen produkzioan irabaziak, A alokairuak ezin dituzte beren titularrek gastatu ondasun horiek

erosteko, familiek ezin baitizkiete lotu amortizazio-ondasunak edukitzen ez dituzten kapital finkoei.

Hala ere, argi dago amortizazio-ondasunen produkzioak sorturiko errenten zirkuituak beste zirkuitu monetarioak bezain “perfektuak” direla. Beraz, A errentak amortizazio-ondasunen erosketan azkenean berrisurtzeko duten bidea aurkitu beharra dago.

11. Kapital finkoaren amortizazioak dagokion familia-errentaren partea finantza-tituluetan eraldatzea dakar

Errenta-titularrek ezin dituzte zuzenki amortizazio-ondasunak erosi, kapital finkoa ez dagokielako. Desagertuko al litzateke oztopoa, baldin eta amortizazio-ondasunak azkenik finantza-tituluen eran lortuko balituzte?

Baietz dirudi. Baina hori egiaztatu baino lehen, gogora dezagun langileek titulutan, eta ez monetatan, kobratzen duten kasu bakarra.

Inbertsio-netoaren kasua da. Mozkinekin ordainduak, langileek errenta hutsa jasotzen dute, eta, konpentsazioan, mozkinek alokairuen aurreko bereganatzean aurrezturiko alokairu-ondasunen gaineko titulu bat.

Langileek amortizazio-ondasunen gaineko tituluak berdin lortuko balituzte, logikoa litzateke esatea, oro har, beraien jabeak izanen liratekeela. Tituluen ordezkotasunen trukeak ez luke edukiko inolako zailtasunik. Logikaz, amortizazio-ondasunei beren errentak zuzentzeko ez-gai izanik (berriro, kapital finkoen jabeak ez direlako), titularrak amortizazio-ondasunak erosteko baldintzetan egonen lirateke, ondasun horien gaineko tituluen konbertsioaren bidez.

Zailtasun bakarra, orduan, hasierako adierazpenean datza: jasotzen al dituzte, efektiboki, langileek, amortizazio-ondasunen produktugileek, errentak izan gabe, azkenik amortizazio-ondasunen gaineko tituluak diren alokairuak?

Analiza dezagun epealdiko produkzioa, alokairu-unitatetan neurtua, A eta A' gisa banatua, A amortizazio-ondasunen produktua izanik eta A' gainontzeko produktua.

Lehen denboraldi batean, egia da A alokairuak A' alokairuak bezalako errentak direla. Izan ere, amortizazio-ondasunen produkzio-korrontea ez da “alokairuen fondo” baten bitartez finantzatzen, ez eta mozkinek aurretik eskuraturiko alokairuen bidez ere.

Bigarren denboraldian (errefluxuan), A errentak ez dira erabiltzen amortizazio-ondasunak erosteko; ezinezkoa da, (ikus 9. puntua). Beraz, logikak honelako informazioa ematen du: A errenten gastuak A' produktua saltzen duten enpresetan mozkin monetarioa sortzen du. A' alokairuzko kostua daukaten produktuak (A'+A) errentekin elkartzen dira.


Hirugarren denboraldia bigarrenaren ondorioa da. Mozkinaren teoriak erakusten du A' produktuaren salmentan sorturiko A mozkinek produktu horren banaketa suposatzen dutela: A'-ren A partetik, langileek enpresaren onurarako produzitzen dute, eta soilik parte osagarriak, (A'-A), beraien alokairu errealak definitzen ditu.

A alokairuek A' alokairuak gutxitzen dituzte. A produktua ez balitz izanen amortizazio-ondasunetan, A' produzitzeko enplegaturiko langileek A'-ren berdinkide diren alokairu errealak jasoko lituzkete. A produktua amortizazio-ondasunetan definitzen denez, A'-ren produktugileek A'-ren berdinkide diren alokairu monetarioak jasotzen dituzte, baina soilik (A'-A)-ren berdinkide diren alokairu errealak.


A'-ren produkzioan emitituriko alokairuen gutxitzea alboraezina da, amortizazio-ondasunak produzitzeko enplegaturiko langileek beste ondasunen produktugileekin batera gastatzen dituztelako beren errentak. Errentak gastatzen dira (A'+A) alokairuzko unitateko kopuru totallean, A' produktuaren azken erosketetan: deduzitzen da, halaberharrez, A'-ren produktugileek ez dutela beren produktuaren osotasuna jasotzen alokairutan, soilik parte bat baino, (A'-A).

A alokairuak lehendabizi errentak dira. Gero, A' alokairuekin batera gastatzen dira, A' produktuaren erosketan. Horregatik, A alokairuak A' ondasunen produkzioan irabazitako errentetan identitate berri batekin agertzen dira.

Erakuts dezagun bi eskematan: A'-ren produkzioa, amortizazio-ondasunen produkzioa kontuan eduki baino lehen eta kontuan edukita.




A' produkzioa amortizazio-ondasunen produkzioa kontuan eduki baino lehen.



A' produkzioa amortizazio-ondasunen produkzioa kontuan edukita.

(2) eskema ez da behin betikoa, ezinezkoa baita (A+A') errefluxua A fluxuari lotzea. Soluzioa alde bietatik A kentzea da:



(3) eskemaren interpretazioa bistakoa da: errenta-titularrek A' gastatzen dute (A'-A) erosteko. Egiazkoa da, halaber, amortizazio-ondasunez gain, ekonomiak A' produzitzen duela, eta ez (A'-A). Ezberdintasuna, A berdintzen duena, zerbitzu produktiboen merkatuko ondasunen erosketa bat da: A mozkinaren gastua definitzen du, Etik Era, A' alokairuen A partearen emisioan. Izan ere, A mozkina ez da banatzen; banatuko balitz, amortizazio-ondasunak ezingo lirateke ordaindu.

(4) Ek egiten duen A'ren A partearen erosketa



A' alokairuen A partearen emisioa.

Zailtasuna (4) eskeman dago. Hala ere, teoria unibokoa da. Jadanik existitzen den alokairu bat alokairuen emisioan erabiltzen denean, ordainketa bi merkatuetan identikoki presente den fluxua da: (4) eskemaren A gastua, aldi berean eta mugimendu berean, alokairuen emisio bat da eta produktuen merkatuan erosketa bat. Inbertsio netoen analisiak baieztatzen du: enpresek alokairuen ordainketan alokairuak isurtzen dituzten heinean, (4) eskeman bezala, alokatuen produktua zuzenki erosten dute. Horrela, A' alokairuen A partearen emisioa enpresek egindako A' produktuaren A partearen erosketa da.


A' produzitzen duten langileek berehala (beren alokairuen ordainketan bertan) beren produktuaren A partea galtzen dutenez, beraien A' alokairuak A-ren berdinkide den partean hutsik daude. A' alokairuen emisioa betea da (A'-A) neurrian, eta hutsik A neurrian.

Bil ditzagun adierazpenaren "denboraldi" ezberdinak. Berez, amortizazio-ondasunen produkzioak errentak ematen ditu, beste ondasunen produkzioak bezalaxe. Hala ere, A amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko errentak, (halabeharrez) A' gainerako ondasunen erosketan gastatzen dira. Bazter ezinezkoa da A' produkzioak ondorioa jasan dezan: A' produktuaren (A'-A) parte saltzen da A' produkzioan emitituriko alokairuen (A'-A) partetik eta, gainera, baita amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko A errenten osotasunetik ere.

Enpresek honela gauzaturiko mozkina amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuak A' produktuaren erosketan ere gastatzen dira. Mozkina A' produktuaren A parte da. Honela, A' alokairuen A parte ez da errenta bat: langileek zuzenki jasotzen dute titulu baten forman.

Titulu horren objektua erabat ezaguna da: amortizazio-ondasunak dira, A. Dena tituluaren ordez objektua elkartrukatzean bukatzen da: familiek A'-ren A partea gastatzen dute amortizazio-ondasunen produkzioa finantzatzeko. Beraien errenten ordainketan amortizazio-ondasunak erosteko ez-gai izanik, familiek ondasun horiek lehendabizi kapital finantzariotzat (tituluak) eskuratzen dituzte: amortizazio-ondasunak ordaintzen dituzte titulu horien gastuarekin.

eta, bere eratzearen aldiunean, kapital finkoaren “zati” bakoitza errenta-titularren multzoaren jabetze ekonomikoa balitz, kapital finkoen amortizazioa zeharkako erosketara murriztu ahal izango litzateke, jantzi baten erosketan eskuratzen den oihala bezala: amortizazio-ondasunak familietara iritsiko lirateke hasierako kapitalak bezalaxe. Errealitatean, badakigu enpresen multzoak parte hartzen duela; inbertsio-ondasunak enpresetan garatzen direnez, amortizazio-ondasunak ere bai. Beraiek familietara ailegarazteko —azkenik familiek ordaintzen baitituzte—, amortizazio-ondasunen produkzioaren mugimendua bitan banatu behar da.



(2) mugimendua (1) mugimenduaren indukzioa da; amortizazio-ondasunak familien ondareetatik bota dituzte kapitalari (hasieran X dena) gehituriko mozkin-ondasunek.

Familiek amortizazio-ondasunak ordaintzen dituzte eta, alde horretatik, be-raiek eskuratzen dituzte; kapitala, hala ere, X da enpresetan: mozkin-ondasunak kapitalaren gehitze netoa dira.

Ondorioz esan behar da kapital finkoaren amortizazioa ez dela kapitalaren birproduktio soila, patologiarik ezean gertatuko litzatekeen moduan, baizik eta amortizazioa berdintzen duen gehitze bat sortzen duela, mozkin-ondasunak kapitalari gehitzean, $(X+A)$.

Kapital finkoaren amortizazioa mugimendu laua balitz (enpresek kapitalaren eskuratzea mantenduz), X kapitala amortizazioaren ondoren ukitu gabe egonen litzateke, eta berorren A partea familiengana igaroa izanen litzateke. “Kapitalistak” enpresen multzoa $(X-A)$ balioan izanen litzateke, eta errenta-titularrak A balioan. Hala ere, errealitatean, errenta-titularrei transferitzeko kapital finkoa mozkin-ondasunek ordezkatzan dute mugimendu berean. Amortizazioa dela eta, kapitala gehitzen da $(+A)$ errenta-titularren ondarean, eta zero, (ez $-A$), enpresetan: orokorrean X tik $(X+A)$ ra igarotzen da.

Kapital finkoaren kontserbazioan ez da inolako emisio hutsik gauzatzen, X tik $(X-A)$ ra igarotzen denean, eta gero $(X-A)$ tik X ra. Halaber, ez dago ezelako emisio hutsik alokairu-ondasunen produkzioan. Baina mozkin-ondasunen emisioa, amortizazio-ondasunen produkzio duala, halabeharrez hutsa da. Halabeharrez esan

beharra dago, zeren inbertsio netoak definitzen duen emisio hutsean ez bezala, amortizazio-ondasunen produkzioak indusitzen duen emisio hutsak moneta hutsera baitarama, edukirik gabeko monetara; kasu honetan, ez dago inolako alokairu-ondasunik esperoan hutsunea betetzeko. Mozkin-ondasunak produzitzeko enplegatutako langileek alokairu erabat hutsa eskuratzen dute, zeinaren gastuak ezin dien ezer eman errenta-titularrei, edozein direlarik hauek.

Epealdiko produktuaren etsenpluan, honela bana daiteke produkzioa:

- (i) A, amortizazio-ondasunen produkzioa;
- (ii) $(A' - A)$, alokairu-ondasunen produkzioa; eta
- (iii) A, produkzio duala, mozkin-ondasunena.

A' produkzioan irabazitako A alokairuak "gastatu" eta deuseztatu egiten dira langileek eskuratzen dituzten aldiune berean.

Soilik lehenengo bi alokairuek, A eta $(A' - A)$ k, daukate produktua, amortizazio-ondasunen eta alokairu-ondasunen batura. Hirugarren alokairuak (A berdintzen duena) ez dauka inolako produktu berririk, baina gainera, era berean, ez dauka aurreko inolako produkturik (alokairu-ondasunetan); soilik errenta-titularrei permititzen die amortizazio-ondasunak ordaintzea. Produkzio dualaren neurrian, langileek ez dute produzitzen errenta-titularrentzat, ez dute pertsonentzat ekoizten: Minotau-roaren, alegia, Kapitalaren menpeko dira.

15. Kapitalismo garatua, herrialdearen industrien herenak alokairu hutsak emititzen ditu

15.1. Kapital finkoaren amortizazioan dauden fluxuen katea

Edozein kapital instrumental bere amortizazio-eritmoaren menpe dago, zaharzte eta erabilpen teknologikoak determinaturik. Honela, 100 unitateko kapitalak, zeinaren urteko amortizazioa 50 unitatekoa den, beste hainbeste emisio huts indusitzen du urteko % 5ean amortizatzen den 1000 unitateko kapitalak.

Eman dezagun batez besteko "abiadura" (alokairu-unitatetan ponderatua) amortizazioko ziklo bat dela 10 epealditan, denboran linealki banatuak. Epealdi batean, (p) -n, gizarteak industri enpresek (epealdian) emitituriko alokairuen ehunena berdintzen duen kapital finkoa eskuratzen du. Demagun, sinplifikatzeko, epealdi bakoitzean emitituriko alokairuak berdinak direla. $(p+1)$ epealdirik egiaztatzen da ezen industrian populazio aktiboaren milaren batek epealdi bakoitzean lan egiten duela lehen kapital finkoa amortizatzen; jarduera horrek indusitzen ditu, ikusi den bezala, emisio huts berdinak, amortizazio-ondasunen produkzio dualan: $(pq) > (p)$ edozein epealditan lanaren milarena erabiltzen da emisio hutseko sekzioan, mozkin-ondasunak produzitzeko.

Har dezagun, orain, (p_0) epealdia, non progresiboki metaturiko kapital finkoak $(10/3) \times$ alokairu-unitateko balioa lortzen duen, x epealdi bakoitzean emitituriko alokairu-kopurua izanik. Erraz frogatzen da, produkzio-modu horretan, (p_0) epealdia arte metaturiko kapitala amortiza daitekeela denboran zehar; aitzitik, kapitalaren

edozein gehiketa, $(p) > (p_0)$ epealdietan metatua, logikaz, amortizazioaren patologiaren menpe geratzen da. Arrazoa bistakoa da: ezinezkoa da epealdi bakoitzean populazio aktiboaren herena baino gehiago enplegatzea amortizazio-ondasunak produzitzeko.

15.2. Amortizazio-ondasunen produkzioa mozkin-ondasunen produkzioan emitituriko alokairuen eskuratzekak finantzatzen du

Izan ere, amortizazio-ondasunen edozein produkzio epealditan birritan errepikatzen da. Froga dezagun.

Produkzio duala lor daiteke mozkin-ondasunen erosketan amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako alokairuen gastuen bidez eginez gero; honela behin errepikatzen da produkzioa.

“Bigarren bikoiztasuna” honelaxe adierazten da. Gogora dezagun jarduera produktiboaren banaketa epealdian A_n eta A'_n , A amortizazio-ondasunen produkzioa izanik eta A' gainontzeko ondasunena. A errentaren gastua A' produktuaren eraketan A' produkzioaren A partea produkzio dual bihurtzen duen eragiketa da. A errentak ez balira zuzenduko —halabeharrez zuzentzen diren moduan— A' produktuaren azken erosketetan, A' osoa alokairu-ondasunek osaturik egonen litzateke (edo, identikoki, alokairu-ondasunek eta ez-alokairuzko ondasunek, errenta-titularren multzoaren onuran). Familien multzoak A' ren A partea galtzen du, soilik amortizazio-ondasunen produkzioan emitituriko alokairuek A' produktuaren azken erosketetan gastatzen direlarik.

Logikoki induzitzen da amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako errenten gastua alokairu-ondasunen azken erosketan bat dela, A ren baliokidea dena: soilik erosketan horrek sortzen du amortizazio-ondasunen produkzioari dagokion mozkin monetarioa. Produkzio duala alokairu-ondasunen lehen erosketan, — A ren baliokidea dena—, honen ondorioa da. Lehen erosketan hori amortizazio-ondasunen produkzioan irabazitako errenten bikoiztasuna da.

Labur dezagun fluxuen katea. Amortizazio-ondasunen produkzioak A errentak sortzen ditu, identikoki alokairu-ondasunen azken erosketan bat definitzen dutenak. Alokairu-ondasunen azken erosketan horrek mozkin monetario bat sortzen du, zeinaren gastuak mozkin-ondasunen azken erosketan definitzen duen. Amortizazio-ondasunen produkzioaren hirukoiztasuna dago, errepikatzen duena, lehen-dabiziz alokairu-ondasunen produkzioan eta bigarrenez mozkin-ondasunen produkzioan.

Oso informazio garrantzitsua lortzen da: herrialdeko industrietan, amortizazio-ondasunen produkzioak, logikaz, populazio aktiboaren herena besterik ezin du enplegatu.


Zer gertatzen da baldin eta, izatez, amortizazioen baturak industriaren multzoaren produktuaren herena baino balio handiagoa badauka? Erantzun laua litzateke amortizazio gehigarriak inbertsio netoa gutxitzen duela esatea: finantzatzen da, ez produkzio dualaren bidez, baizik eta, inbertsio netoetan gertatzen den bezala, alokairuen bitartez. Inbertsioaren eta amortizazioaren desberdintasuna desagertzen da —eta amortizazioa berriro fenomeno “smithtarra” izatera iristen da— amorti-

zazio-ondasunen produkzioak herrialdeko industrietan populazio aktiboaren herena baino gehiago enplegatzen duenean. Beraz, kapitalak ezin die leporatu amortizazio-ondasunen ordainketa familiei: hau da, amortizazio-ondasun gehigarriak alokairu-ondasunekin nahasten dira.

15.3. Kapitalismo garatuko ekonomietan, industriako populazio aktiboaren herenak gainmetaketarako produzitzen du

Merkatu-ekonomia guztiak, goiz ala berandu, (po) epealdira ailegatzen dira. *Spätkapitalismus* kontzeptua erabat aplikatu dakioke (po) epealdian iritsi den edo ailegatzear dagoen edozein ekonomia nazional.

(po) epealditik, epealdi bakoitzeko produkzioan errepresenta ditzake bi esfera zentrokidek; esfera tipia (handiaren bi heren berdintzen duena) merkatuan eskugarri diren produktu berrien —alokairu-ondasunak eta amortizazio-ondasunak— osotasunaz beteta dago, esfera handiak moneta erabat hutsa daukan bitartean, mozkin-ondasunen emisioaren emaitza, produkzio duala.



Bi esferen etengabeko existentziak krisi ekonomikoa —inflazioa eta langabezia— sortzen du.

16. Emisio huts kaltegarriak dira inflazioaren (eta langabeziaren) adierazpen sakona

Kapital finkoaren amortizazioei dagokienez, emisio hutsak metagarriak dira denboran zehar. Gaixotasuna kaltegarria da, batez ere emisio horiek metagarriak direlako.

Mozkin-ondasunen produkzio dualak definituriko ezein emisio huts ez da metagarri denboran zehar; soilik amortizazio berri batek induzitzen du emisio huts berri bat.

Denborako efektu metagarriak zera esan nahi du, emisio huts kaltegarriek eskari gehigarria definitzen dutela, zeinari ez dagokion inolako eskaintza gehigarriarik, ez orain ez eta etorkizunean ere.


(po) epealdira ekonomia iristen denetik, mozkin-ondasunen sektore produktiboan populazio aktiboaren herena enplegatzen du jarraiko epealdi guztietan. “Inertzia” bera egiaztatzen da produkzio osoan mozkin-ondasunen produkzioaren edozein proportzio ttipitan. Bi mugen artean, —%0 eta mozkin-ondasunen sektorean enplegaturiko populazio aktiboaren bi heren—, edozein proportziok, behin lortuz gero, denboran irauten du.

Emisio hutsen ezaugarri errepikakor horrek kaltea dakar. Inflazioa (eta langabezia) emisio kaltegarrien inertiari edo efektu metagarriari dagozkio.

Ikusiko dugu inflazioa fenomeno bikoitza dela, zeren eta, nahiz eta bere jatorrian beti produkzioan definitua izan, eta beraz, denbora kuantikoan, denbora jarraituan ere agertzen baita.

16.1. Inflazioa denbora kuantikoan

Edozein epealditan emitituriko alokairuen batura ($x+y$) da. Alokairu guztiak lehen irudikaturiko esferen nukleoko produktuen erosketan gastatzen dira (nukleo edo emisio beteak, eta koroa edo emisio hutsak). Baldintza honetan eskari gehigarria irakurgarria da.



(pq) epealdian, ekonomiak ondasunak ekoizten ditu ($x+y$) alokairu-unitateko neurrian, eta ondasun horiek beroriek saltzen ditu ($x+2y$) alokairu-unitateko neurrian: eskari gehigarriaren gehiketa (y) alokairu-unitatekoa da.

Emisioen teoriak bi informazio ematen du:

(i) Nukleoko “prezioen maila orokorra” ez du definitzen “bizitza-kostuaren” indizeen metodoak, egokiena ez dena, baizik eta nukleoan produktutako ondasunen azken merkatuan egiazaturiko emisioen baturak: ($x+y$) bilaturiko emaitza zehatza da, nukleoko produktua osatzen duten ondasun fisiko desberdinen artean edozein delarik batura horren barneko banaketa.

(ii) Eskariaren gehiketa ez da irudikatzen epaldi batetik beste batera prezioen maila orokorraren gehitze batean, baizik eta epealdi bereko gehiketa batean; nukleoko produktuaren prezioa ($x+y$) da (pq) epealdian, epealdi berean soilik (x) den bitartean, eskari-gehitzearen abstrakzioa eginez.

Desoreka inflaziogilea eskari osoaren eta eskaintza osoaren arteko desberdintasuna da. (pq) epealdiko produktuaren eskari osoa ezin da konparatu beste epealdi bateko produktuaren eskaintza osoarekin. Beraz, desoreka inflaziogilea dinamikan kokatu nahi izatea errore formal da. Nukleoko produktuaren prezioen maila orokorra ez da gehitzen denborarekin; gehitu egiten da produkzio-epaldi beraren barruan, eskariaren gehiketa kontsideratzen denean.

Inflazioa, zeinaren jatorria beti emisio kaltegarrietan dagoen —beraz, denbora kuantikoan— denbora jarraiko denboran mugimenduak sortzen du, hau da, nukleoaren barnean bertan.

16.2. Inflazioa denbora jarraituan

(y) emisio hutsaren ondorioak (x) emisio betearen produktuaren gainean estudiatzen direnean, desberdintasun logiko bat egin behar da: emisio hutsaren ondorioa nukleoko produktuaren osotasunean alde batetik, eta nukleoaren barneko ondorioa bestetik. Denbora kuantikoko inflazioak lehen ondorioa ematen du. Ikus dezagun bigarrena. Zer gertatzen da nukleoan, epealdiz epealdi, koroa garrantzitsuaren presentzia dela eta?

(i) Inflazioaren lehen efektua denbora jarraituan. Langileak ez balitu kapitalak enplegatuko, mozkin-ondasunen sektorean enplegaturik dauden moduan, nukleoa industri produkzio osora zabalduko litzateke eta, logikoki, soilik alokairu-ondasunak inkluditu ahal izango litzuzke; amortizazio-ondasunak, orduan, kategoria horri loturik egonen lirateke. Baldintza horietan, kapital-ondasunen produkzioa ez litzateke baliogabea. Nolanahi ere, nukleoko emisioak kapital finko berriak sortzeko gai dira, aurrezki berrien kontsumo produktiboa dela kausa. Baina, nukleoan kapital finkoaren eratzearen gainera, koroan eraturiko inbertsio netoak daude. Epealdi bakoitzean emisio hutsek kapital finkoa produzitzen dute kapital instrumentala ekoizten duten neurri zehatzean.

Dei dezagun metaketa nukleoan dagoen kapital finkoaren gehiketara eta gainmetaketa koroan dagoen kapital finkoaren gehiketara.

Argi dago edozein gainmetaketak nukleoko produktuaren banaketa suposatzen duela *stricto sensu*-ko alokairu-ondasunetan eta dibidendo-ondasunetan, zeren eta, nahiz eta koroan eratu, kapital finkoak dibidendoak ematen ditu, interesen eran badira ere. Gainmetaketa denboran metagarria denez, mozkinak nukleoko produktuaren proportzio hazkorrean eratu behar dira.

(x) produktuaren edozein likidaziok, alokairu eta mozkinen artean, *stricto sensu*-ko alokairu-ondasunen salmenta-prezioen gehiketa definitzen du, zeren eta alokairuzko errenten gastuak batera alokairu-ondasunen eta dibidendo-ondasunen produktua finantzatu behar baitu.

Alokairu-ondasunen gehiketa estatistiketan agertzen da; kapital instrumentalean produktibitatea alokairuetan mozkinen sastadaren gehiketak deuseztatzen du. Ondasun indibidualen prezioa jaitsi beharko litzateke; prezioak nukleoaren barruan igotzen dira, zeren eta, gero eta teknologikoki garatuago den kapitalaren metaketa eta gainmetaketa egon arren, saski barneko artikulua indibidual bakoitzak dibidendo-mozkinen zama hazkor bat jasan behar du. Inflazioa honela denbora jarraituan agertzen denean, nukleoaren barruan denbora jarraituan prezio hazkorak direnean, egiazkoa da gainmetaketen ondorioa globalki negatiboa dela.

(ii) Bigarren ondorioa. Hemen alokairuen eta prezioen balizko "espiral" ospe-tsua da kontua. Emisioen teoriak simetria faltsu hori apurtzen du eta errealtatearen ikuspegi egokia eman: prezioen igoera aurretikoa da, ez baitagokio alokairuen gehiketari, emisio hutsen existentziari baizik. Langile-sindikatuak alokairuen gehiketa eskatzen badute, kapitalaren menpekotasunaren kontra borrokatzeko da.

Egun, oso zehazki ezagutzen da alokairuen maila orokorraren igoera periodo-koaren *modus operandi*-a.

Alokairu monetarioak errenta nazionalaren definizioa dira; alegia, alokairu-unitatea magnitude ekonomiko guztien patroia da, kapitala barne. Alokairuen gehiketa orokorra, patroia eskalar batek, (>1), zatitzea da. Nahiz eta zatiketa horiek errenta berriei nominalki eragin, zein, eskalar horren bidez biderkatuz, lehen ziren bezalakoak diren, ezin du eragin aurreko metaketak eta gainmetaketak datozen errenten gainean. Kapital erabilgarriaren batura, bere bi eiteetan (finantzarioa eta erreala), eskalar horrek zatitzen du: kapitala, bankuen aurrean kobrantza-eskubidea, ustez konstanteak diren moneta-unitatetan definitua, alokairuen maila orokorraren gehiketa dela-eta murrizten da. Alokairu guztia bat-batean 2 zenbakiaren bidez biderkatuko balitz, epealdi bereko kapital erabilgarria bat-batean 2 zenbakiak zatitua izanen lirateke. Eta kapitalaren murrizketak emisio hutsen murrizketa proportzionala inplikatzeko du.

Demagun etsenplu bat. Epealdian, alokairu guztiak heren bat gehitzen dira. Suposa dezagun alokairuen bat-bateko gehiketa baino lehen emisio hutsen partea produkzio osoaren herena dela. Neurriaren patroia $4/3$ zenbakiak zatitua izanen da. Beraz, emisio hutsen batura heren batetik, ($1/3$), produkzio osoaren %25era igarotzen dela, $1/3 / 4/3 = 1/4$: herrialdeko industrietan soilik populazio aktiboaren laurdena enplegatzen dute. Alokairuen gehiketa nukleoaren zabaltzea da, koroaren kalterako.

16. 3. Koroako produkzioa izanik, inflazioa denbora kuantikoan definitzen da; berorren neurketak denbora jarraituan ez du islatzen desordenaren zabaltasuna

Epealdi bakoitzean, desoreka inflaziogilea koroako produzioak definitzen du.

Ikusiko dugunez, ohiko metodo estatistikoek ez dute ematen inflazioaren neurria, inflazioaren “azelerazioa” baizik.

Ohiko teoriak alokairu-ondasunen eta mozkin-ondasunen prezioaren igoeraz aritzen dira. Baina, ikusi dugunez, inflazioa soilik alokairu-ondasunen gainean definitzen da. Mozkin-ondasunen neurri biak, nominala eta erreala, halabeharrez bat datoz. Hori honela da, mozkin-ondasunak zerbitzu produktiboen merkatuan erosten baitira: beraz, beraien produkzio-kostuan erosten dira, zehazki beraien balioan.

Prezioa (nominalki) alokairu-ondasunetarako, —produktu-merkatuan erosten diren ondasun bakarrak—, balioa baino handiagoa izan daiteke. Ilogikoa litzateke pentsatzea mozkin-ondasunek inflazioa jasaten dutela, zeren eta mozkin-ondasunak alokairu-ondasunek jasaten duten inflazioak erabat finantzatzen ditu.

Epealdi bakoitzean koroako produkzioari dagokiolarik, inflazioak ez dauka inolako inertziarik denboran zehar. Inflazioak iraun egiten du, epealdietan zehar, epealdi bakoitzean *ab initio* berrastan baita. Inflazioa ez da metagarria denboran.

Hortaz, desoreka inflaziogilea ezin da “aldaketa-kalkulu” baten menpe egon, prezioen indizeak aldatzeko moduaren arabera neurtua.

Inflazioak, lehen ikusi dugunez, ezin du gainditu, inongo epealdian, industri produkzio osoaren herena. Heren hori lortzen denean, alokairu-ondasunen prezioen

maila orokorra ezin da handitu: beraz, prezioen indizeen metodoak ez du inflazioa neurtzen, metodoa erabat gezurrezkoa da.

Ekonomialariek prezioen indizeen metodoa erabiltzen segitzen dute, estatistikoan teoria kuantitatibista usatzen delako.

Errenta-titularrak ez dira sentikorrek prezioen aldaketa "absolutuei". Inflazioak egun atzo bezalako prezioen indizeen proportzioa badauka, galera "isilpekoa" da. Soilik analisi kuantitikoak ematen du erantzun zuzena, alegia, epealdi korrontean errenten herena inflaziorako uzten dela.

Nahiz eta kontsumo-ondasunen prezio globala ez handitu, prezioen egonkortasunak soilik adierazten du egungo galera ez dela aurreko galera baino handiagoa; baina, galera badago, egon. Inflazioa dela kausa, produktuen murrizketa ez da deuseztatzen baldintza horietan; soilik industrien multzoan, epealdi bakoitzean, ekonomia nazionalak produzitzen dituen errenten herenaren mailan egonkortzen da.

16.4. Errenta-titular guztiak kapitalaren kontra borrokatzen dira

Bizitza ekonomikoa kapitalaren kontra errenta-titular guztien (dibidendo-mozkinak barne) borroka da, pultsio-katea dela ematen duelarik: koroaren murrizketa errepikatuak, alokairuen gehiketak direla kausa, eta beste horrenbesteko handiketak, logikak behartzen duen mugaraino, hots, herrialdeko industri produkzioaren herena lortzeraino.

Pultsioen zabaltasunak auto-irauten du: zenbat eta gehiago borrokatu herrialde bat kapitalaren aurka alokairuen gehiketa dela bide, hainbat gehiago segitu behar du borrokatzen, kapitalak bere eskubideak etengabe eta automatikoki erre-kuperatzen baititu. Ekonomia nazional orok "inflazio tasa" garaia jasaten du, nolabait, herentziaz, inflazio konstantea denboran zehar propagatzen baita, beti berrasten diren pultsioen ondorioz.

Kapitalak gizakia lanetik botatzen duenean, beste kalte are kezagarriagoa agertzen da, langabezia alegia (Schmitt 1984, 1996).

17. Emisio kaltegarriak eta deflazioa

Nola adierazi batera inflazioa eta deflazioa? Gertaerak ekonomi zientzia ortodoxoaren arabera egokituko balira, oreka bat egonen litzateke eskari gehigarriaren (inflazioa) eta eskari defizitduaren (deflazioa edo langabezia) artean. Errealitatea askoz konplexuagoa da; "stagflazio"aren existentziak egiaztatzen du inflazioaren eta langabeziaren koexistentzia.

Emisioen teoriak stagflazioaren adierazpen sakona ematen du. Kontrako diren bi desordenaren sinbiosiaren analisia inflazioa definitzen duen eskari gehigarriaren natura zehatzaren ezagutzarekin hasten da, eta hau denbora kuantikoan kokatzen da.

17.1. Inflazioa geldialdian

Emisio hutsa izanik, eskari gehigarria beharrezkoa da mozkin-ondasunen azken salmentarako. Bestela esanda, eskaria ez balitz gehigarria izanen, mozkin-ondasunak ez lirateke pagatuak izanen; enpresek soilik alokairu-ondasunak saldu ahal izango lituzkete: alokairu-ondasunek azken salmentaren defiziten kopuru osoa definituko lukete.

Ohiko errepresentaziotik urrun gaude. Izan ere, eskaria gehigarria da berari dagokion eskaintza baino handiagoa delako. Beraz, ematen du eskari gehigarriaren deuseztapenak produktu osoaren erosteko errenta nahikoa izaten utzi beharko lukeela. Hori ez da horrela. Arrazoiketa egokia hurrengo aukeraren terminoetan oinarritzen da:

(i) Edo kontuan hartzen diren emisioak beteak dira, eta eskaintzaren gaineko eskariaren edozein gehiketa (positibo edo negatibo) pentsaezinezkoa da.

(ii) Edo analisisa emisio hutsei dagokie; kasu honetan, eskari gehigarria ez da "gainhazkunde" bat edo "gehiegi bete" bat, mozkin-ondasunei aurre egin diezaiokeen eskari bakarra baita.

Emisio hutsen kopurua (y) da, produktu osoaren eskaria [x (alokairu-ondasunen neurria) + $2y$] da. (y)-ri dagokionez, eskari gehigarria mozkin-ondasunen erosketa da berorien produkzio kostuan; eskari hau faltako balitz, produktuen merkatuko gastua soilik (x) alokairu-unitatekoa izanen litzateke, alokairu-ondasunen (amortizazio-ondasunak barne) ordainketarako nahiko izanen litzatekeen batura: mozkin-ondasunek ez lukete aurkituko eroslea. (y) birritan desagertzea, kolpe soil batez, bi merkatuetan (y) alokairu-unitatea gastatzen delako gertaerari dagokio.

Logikaz, eskari gehigarria mozkin-ondasunak banatzeko eskari nahikoa da. Ekonomiaren inongo lekuan, ezelako produktuari dagokionez, ez du eskari gehigarriak eskaintza osoaren gehiketa nominalik definitzen.

Heren eskulosoaren printzipioa hautsi behar da. Ez da egia eskari osoaren eta eskaintza osoaren diferentzia ez-negatiboa, positiboa edo baliogabea dela: eskari gehigarria batera da diferentzia positibo eta baliogabe bat.


(1) Eskari gehigarria eskari osoaren eta eskaintza osoaren arteko diferentzia positibo bat da. Nahiko da etsenplua aipatzea. Produktu osoa ($x+y$) alokairu-unitateek neurtzen dute; produktu berbera azken salmentetan banatzen da, zeinaren batura ($x+2y$) alokairu-unitateak diren.

(2) Eskari gehigarria eskari osoaren eta eskaintza osoaren arteko diferentzia baliogabea da. Etsenpluak frogatzen du. Nukleoan, produktua (x) moneta-unitateek neurtzen dute, ($x+y$) moneta-unitatearen bidez erosten da. Hala ere, gainera nukleoan gastatzen diren (y) alokairu-unitateak mozkin-ondasunen, koroako produktuaren, finantzaketa dira. Beraz, nukleoko produktuari dagokionez, azken gastua soilik (x) alokairu-unitatekoa da, eskaintzaren kopuru zehatza. Koroako produktuari dagokionez, zerbitzu produktiboen merkatuan erosten da, nukleoan eskuraturiko (y) alokairu-unitatearen bitartez. Hemen ere, alokairuen gastua produktuaren eskaintzari dagokio zehazki, (y) (y)-ren partez.

17.2. Deflazioa (langabezia) geldialdian

Zein da koroan ekoizten diren ondasunen natura zehatza? Tautologikoki, mozkin-ondasunak dira. Baina ez da inola ere egia emisio hutsek kapital-ondasunak edo kapital instrumentala produzitzen dutela. Ulegarria da mozkin-ondasunen "forma" familiei zuzenduriko ondasunez (osoki edo partzialki) betea izan dadila.

Nukleoak alokairu-errentak eta ez-alokairuzko errentak (dibidendo-mozkinak) produzitzen ditu. Dibidendoen parteak bere muga lortzen du, edozein epealditan, nukleoko produktuaren erdira zabaltzen denean. Izan ere, langileek egun bikoitietan soilik alokairu-ondasunak produzitzen badituzte, "alokairu-fondoa" lortuko lukete, egun bakoitietan dibidendo-ondasunak produzitzea permitituko liekeena. Dibidendoak egun guztietan nukleoko produktuen erdira zabaltzen direnean, ezinezkoa da hauek gehitzea, kapitalaren gainmetaketa jarraituari dagozkion ondainketa-beharrizanak edozein direlarik. Kapitalaren etengabeko hazkundearen aurrean, dibidendo-mozkinak ezin direnean gehitu, enpresek bi aukeraren aurrean hautatu behar dute: koroa murriztea, edo mantentzea, baina alokairu-ondasunak produziazaraziz.



Erakutsiko dugu (a) eta (b) kasuek emaitza berberak ematen dituztela.

(a) Kapital berriaren osotasunerako ordainketa nahikoa ez aurkitzean, enpresek beren produkzioari uko egiten diote, eta honela produkzio nazionala murrizten dute, $(x+y')$ alokairu-unitateko mailan enplegua mantenduz, $[(x+y)$ -ren ordez].

Sortzen den langabezia epealdian (y'') moneta-unitateko ordainketa jasoko zuten langileengan zabaltzen da.

Mozkin inflaziogileak (y) dira; haien (y') parte inbertitzen da; zer gertatzen zaie (y'') mozkinari? Egiazkoa da gastatzen direla: zirkuituaren legeak behartzen du; (y''') mozkinak ez balira gastatuko, ez lirateke existituko, kontraesan izanen litzatekeena.

Aukerak ugari dira. Hauta dezagun bat, harrizkoa dena: (y'') mozkinaren errenta-titularren multzoari maileguz ematen zaio. (y'') kapitalak honela bere ordainketa aurkitzen du, famili errentetatik hartua: finantza-merkatuak produktu-merkatuak ezin sor ditzakeen errenta gehigarriak hornitzen ditu. Baldintza horietan, mailegu-hartzaileek gauzaturiko (y'') gastuak, $(x+y)$ gastuei produktu-merkatuan gehitzean, (y) mozkin inflaziogilearen eratzea baieztatzen du. Interesgarria

da seinalatzea ezen mozkin inflaziogilearen parte baten gastu errepikatuak, finantza-merkatuan eta errenta-titularren onurarako, familien zorpetze hazkorra sortzen duela. Epealdi bakoitzean, (y'') mozkina, finantza-merkatuan birziklatua, (x) errentekin kontsumitzen da, mozkin-ondasunen produkzioa finantzatzeko soilik (y') mozkina eskuragarri geldituz. Langabeziak produktiotik erretiraturiko (y'') alokairu-unitateen mailan irauten du.

(b) Ulergarria da enpresek beste aukera hautatzea (y'') mozkina ezin dutela inbertitu ulertuz, nahiko errendimenduaren ezean. Beraz, ondorioztatzen da (y'') mozkina ezingo dela inbertitu. Baina, ez dago inolako segurtasunik. (y'')ren inbertsioak bi era desberdin har ditzake: mozkina kapital finko bilakatzen da, ala, sinpleki, denbora-kapital. Beraz, ez da beharrezkoa, printzipioz, enpresek herrialdearen jarduera murriz dezaten, (y'') mozkina alokairu-ondasunen produkzioan inberti baitaiteke. Hala ere, koroan (edo emisio hutsetan) alokairu-ondasunen edozein produktio eskari osoaren eta eskaintza osoaren arteko diferentzia positibo bat sortzen du.

Nukleoan ($x+y$) alokairu-unitatearen gastutik (y) mozkin inflaziogilea dator, koroako produkzioa finantzatzeko beharrezkoa eta nahikoa dena. Produktu-merkatuan mozkin-ondasunak ez badira eskaintzen (aurretik dagoen kapital finkoari bat-batean "lotuak"), eskari osoak ez du inolako ez-nahikotasunik jasaten. Baina, (y'') neurri osoan, alokairu-ondasunak produzitzeko mozkin inflaziogileak gastatzen diren neurrian alegia, ondasun horiek merkatura jaulkitzen dira erosteko ahalmen baliogabe baten aurrean. Bizioa bistakoa da; (y'') mozkin inflaziogileen gastuak produzituak, alokairu-ondasunak bigarrenez saldu behar dira, hau da, produktu-merkatuan, zerbitzu produktiboen merkaturak banatuak izan ondoren. Ekonomia nazionalak (y'') erosteko ahalmena behin hornitzen du, eta ez birritan.

Produktu-merkatuan errenta erabilgarrien batura $x+y$ da.

Produktu-merkatuan eskaintzen batura $x+y+y'$ da.

Azkenik, enpresek ez dute aukerarik. Nahiz eta (y'') mozkinak finantza-merkatuan inbertitu, edo alokairu-ondasunen produkzioarako erabili, enplegu nazionala enpresetan soilik ($x+y'$) alokairu-unitateko mugan egiaztatzen da: mozkin inflaziogilearen (y'') parteak bazterrezinezko langabeziaren neurria ematen du.

18. Emisio ez-bete edo hutsak baztertzeko bankuen jarduera hiru departamentutan banatu behar da

Labur dezagun hiruko banaketaren printzipioa (Schmitt 1984):

(i) Emisio-departamentuak monetaren sorrera eta deuseztapena erregistratzen ditu, bera produktuaren eraketan, produktuaren transferentzietan edo produktuaren azken salmentan definitua izan.

(ii) Aurrezki-departamentuak —edo denbora-kapitalarenak— bankuetan eraturiko gordailu arrunt guztiak bereganatzen ditu, finantza-merkatuan beraiek "birziklatzeko", gordatzaileen edo azken mailegu-emaitzen onurarako.

(iii) Kapital finkoaren departamentua, —edo denbora-kapitalaren era garatua-rena—, lehendabizi II departamentuan eraturikoa eta erretiratua —hain zuzen ere, kapital instrumentalean inbertitzen delako—, izan behar duen aurrezki guztiaz arduratzen da: aurrezki hau II departamentuaren esku utziko balitz, eskari gehigarria elikatuko luke eta emisio ez-beteak sortu.

Bibliografia

Schmitt, B. (1984): *Inflation, chômage et malformations du capital*, Castella, Suitza.

—————, (1996): "Unemployment: is there a principal cause?", in A. Cencini eta M. Baranzini (ed.), *Inflation and unemployment? Contribution to a new macroeconomic approach*, Routledge, New York.

Tobar-Arbulu, J. (1997): "Produkzioaren teoria monetario berrirantz", *Uztaro*, 21, 21-33.